


6 mantangorri



AZOKA



LIBURUA

Izenburua: 'Nur eta denboraren liburua'.**Egilea:** Toti Martinez de Lezea. **Marrazkiak:** Juan Luis Landa. **Orrialde kopurua:** 156 orrialde, koloretan.**Bilduma:** Nur. **Argitaletxea:** Erein.

hori defendatzen duen mugimendu bat.

Istorio honekin argi geratu da liburuekin noranahi bidaia daitekeela, ezta?

Halaxe da, bai. Izan ere, Nurrek eta haren lagunek amamaren liburutegian dagoen liburu bati esker bidaiatzen dute Erdi Arora. Irudimenei eta liburuari esker ezagutzen dituzte Erdi Aroko herrixka eta Robin Hood, Lady Marian, sheriff-a eta konpainia. Liburuak, beraz, aspergarriak izan ordez dibertigarriak dira. Guraso askok esan izan didate euren seme-alabak Nurren istorioei esker hasi direla gustura irakurtzen eta liburuez gozatzen. Eta ez hemengo haurrek bakarrik, e! Santanderren (España), esaterako, zale talde bat dut, eta, asteburuan, hitzaldi bat ematera noa hango liburutegi txiki batera.

Juan Luis Landak ere dotore apaindu ditu protagonistak, ezta?

Bai, dudarik gabe. Nurren liburuak egiteko Juan Luis Landaren laguntza dut, eta zoragarria da hark egiten duen lana. Marrazkiak egin aurretik, haur guztien argazkiak ematen dizkio, eta diren bezalakoak marrazten ditu. Izan ere, liburan ageritzen diren haur guztiak benetakoak dira, ez dira pertsonea asmatuak. Nur nire biloba da, esaterako.

Erdi Aroan ibili dira oraingoan. Hurrengo liburuan nora bidaiatuko dute Nurrek eta lagunek?

Ideia pentsatu dut dagoeneko. Orain dela gutxi Iratiko oihanean egon nintzen, aterpean, oso gustura egon ere. Eta laster bururatu zitzaidan hurrengo liburuan mendira bidaliko nituela Nur eta haren lagunxoak. Irati oihana eta Orbaitzeta leku zoragarriak dira, magikoak, eta istorio bat kokatzeko inguru ezin hobeak. Iratin gida lanean ibiltzen dena ezagutzen dut. Bi alabatxo ditu, eta biak Nurren irakurleak dira, beraz, haiiek ere aipatuko ditut hurrengo liburuan, Nur eta bere lagunxoekin batera.

**Toti Martinez de Lezea**

IDAZLEA

«Haur asko Nurren istorioei esker hasi dira liburuez gozatzen»

Nork dio liburuak aspergarriak direla? Nur eta haren lagunentzat, ez, behintzat. Amamaren etxean topatu duten liburu bat esker, Erdi Arora bidaiatu dute, eta Robin Hood eta Lady Marianen maitasun istoria ezagutu dute.

Orain dela bost urte argitaratu zuen Toti Martinez de Lezea idazleak Nur gaztetxoaren lehen liburua: *Nur eta irlandar gnomoa*. Bost urteren buruan, bederatzi garren liburua da *Nur eta denboraren liburua*, eta hamargarrenetako ideia buruan bueltaka du.

Txinatik Larrabetzura eta Larrabetzutik Erdi Arora bidaiatu du Nurrek oraingoan.

Bai, hala da. Txinan bizi da Nur, baina Larrabetzura etortzen da udako oporrak igarotzera. Oraingoan ere halaxe egin du. Amamaren etxera datorren goiz batean, liburu bat irakurtzen hasten da Nur: *Denboraren liburua*. Liburu trokelatua da, eta hegalez beterik dago. Zabaldu orduko, garai bateko herri bat agertu zaio Nurri begi aurrean; gaztelua ere badu herriak. Etxe horietako bateko hegala zabaldu, barrura begiratu, eta... Plaf! Barruan dagoela ohartu da, bat-batean. Istorioan, beraz, denetarik nahasten da: istorio unibertsal edo klasiko bat, Robin Hoodena; Erdi Aroa eta Inglaterra.

Zergatik Erdi Aroa?

Niri asko gustatzen zait Erdi Aroa, eta bazen garaia Nurren istorio bat ere garai horretan kokatzeko. 13 urte ditu orain nire bilobak, Nurrek, eta, egia esan, ez die kasu handirik egiten amamaren ipuinei. Lehen, bai, lehen istorioak idazteko makinak bat ideia ematen zidan, eta bildumako hasierako liburuetan ageritzen ziren pasarte asko benetan gertatutakoak ziren. Orain, ordea, ez horren beste, eta, beraz, irudimena askatzeko eta gauzak asmatzeko aukera gehiago dut. Hala bada, haurrekin Erdi Arora bidaia egitea oso polita litzatekeela burratu zitzaidan, eta halaxe egin dut.

Erdi Aroaz gain, baina, gaur egungo Larrabetzu ere agertzen da liburuan.

Bai, istorioaren erdia Erdi Aroko Inglaterran gertatzen da, baina beste pasarte batzuk gaur egungo Larrabetzun gertatzen dira. Pasarte horiek benetakoak dira. Liburuan, esaterako, amama eta aititaren lorategian dagoen zomorroen etxea edo *Bug House*-a aipatzen da, eta hori benetakoa da. Lorategiak hain garbi ditugunez, ez dago zomorroentzako bizilekurik, eta, beraz, hainbat lekutan «etxeak» eraikitzen dizkiete zomorroei bizi ahal izateko. Inglaterran, Alemanian eta Ameriketan bada ideia